

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MENDEBALDEKO KANTAURIAR ARROEN BULEGOA

Zubi bidezko hornikuntzako sarea ordezkatzeko eta euri-urak husteko sare berria exekutatzeko lanak, Amurrioko udalerrian (Araba)

Espediente-zenbakia: AO-B-2018-0377.

Eskatzailea: Amurrioko Udala.

Ibilgura doan euri-urak husteko sare berri bat eta Nerbioi ibaiko jabari publiko hidraulikoa gurutzatzen duen hornikuntzako sarearen zati bat ordezkatzea da xedea, Amurrioko udalerriko Landako kalean.

Hori guztia orok jakin dezan ematen da argitara, iragarkia ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasi eta hilabeteko epean, eskatutako baimenak kalteak eragiten dizkietela irizten dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten epe horren barruan, Bizkaiko Uren Zerbitzuan, Bilboko Urkixo Zumarkalea 36an, Bizkaia Plaza Eraikina, 7. Solairua. Espedientea han izango dute, nahi duenak azter dezan.

Bilbon, 2019ko uztailaren 15ean

Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoaren burua
MARIAN ALONSO PRIETO